

## SECCION AMENA



## ¡ORDAGO!



Dan dan.

—¿Zeñ da?

—Ni.

—Liño, ¿au alda echera etortzeko orduba?

—Bada.... bada....

—¿Zer bada, bada? ¡A zer garaya!

—Bada.... bada....

—Erretiro ona familiko gizon batentzat, ta gañera maisuba. ¡Ejenplo ona! ¡orren berandu!

—Goiza da.

—Etzaude zu goiztar charra! goiza da, bai. Goizeko ordubiyak.

—Bañan.....

—¿Zer dezu or?

—¿Emen? erbi ešurra.

—¿Erbiya jan aldezu?

—Bai bada.

—¿Eta erbiya jan ta orren geldi etorri?

—Bestiak etzuten presik eta...

—Bestiak ¿zer chori ote ziran?

—Erbiya zan, ez degu choririk jan.

Ta gero musian aitu gera.

—Ez dago musik.

—¿Ez? ¡¡ordago!!

Indarraz ori Liñok  
esan zubenian,  
gelditu zan andria  
umilltasunian.

Eta—gabon—esanik  
naiz izan goizian,  
oyera joan zan Liño  
pakian, pakian.

MARZELINO SOROA.

